

FUNTSEZKO JARDUERAK

PRODUKZIOA

Diseinua: Produktua ekoizteko kontratatu dugun enpresa, hau da, Boschek diseinatuko eta ekoiztuko digu platerra.

Kantitate jakin batzuetan produktua egitea: Hasteko, 200 plater merkaturatuko ditugu, batzuk farmazietara eramango ditugu, beste batzuk dietetika dendetara, Amazonera, eta azkenak gure bulegoan utziko ditugu web orriko salmentak kudeatzeko.

Entrega: Entrega, kontratatu ditugun banaketa enpresak egingo dute, hau da, seur, correos, etab.

Kalitatea: Produktuaren kalitatea Bosch-ek zainduko dugu, gure laguntzarekin.

ARAZOAK KONPONTZEKO

Bezeroek arazoren bat baldin badute produktuarekin, zerbitzuarekin edota produktuaren konfigurazioan zalantzak badituzte chat bidezko edo telefonozko zerbitzua egongo da. Bezeroen arreta zerbitzuan dagoen pertsonak etengabeko prestakuntza izango du hainbat alorretan. Bezero arreta zerbitzuan dagoen pertsona paziente izango da, arazoa konpontzeko estrategia desberdinak izango ditu, eta honetarako etengabeko prestakuntza izango du enpresako lan taldeak.

PLATAFORMA/SAREA

Plataformaren gestioa: Sare sozialetaz (Instagram, Facebook, Tiktok, X (Twitter) eta Youtube) taldeko kide bat arduratuko da horretaz, baina web orriaren mantenua kanpoko enpresa bat arduratuko da lan honetaz.

Plataformaren promozionatzea: Bezeroen urtebetze egunean 10% deskontua egingo dugu kodigo baten bitartez; eskatzen duten lehen aldian bidalketa doan izango da, baina aurrez enpresaren datu basean erregistratu beharko dute; farmazietan, lau produktu baino gehiago erosterakoan, gure platerran 10%-ko deskontua izango du; eta dietista dendako txartela baldin badu 3x2-ko deskontua egingo zaio.

Webgunea: Webgunea, kontratatuko dugun langile batek egingo eta mantenduko digu,

App: App bat egingo dugu platerra jasotzen duen informazioa han gordetzeko, bertan, kaloriak, gatzak, etab, egongo dira gordeta.

Komunikazioa: Gure produktuaren informazioa bezeroei iristeko, irratia, telebista, Sare sozialak, kartelak eta posterrak egingo ditugu. Sare sozialetan aplikazio bhauek erabiliko ditugu informazioa jartzeko: Instagram, Facebook, Tiktok, X (Twitter) eta Youtube.